

NAFARROAKO MENDIALDEKO IKA  
EUSKALTEGIEN EUSKARA ALDIZKARIA

ika


# ETXETIK PLAZARA

## HORMIGOIZKO ZIGORRAK

SARIA:  
ERRIGORA  
NAFARROAKO  
PRODUKTUEN  
SORTA

2019ko EREAROA

163. ALEA



Gure eskualdean bunker anitz ditugu; nonahi ageri dira, bertan sartu gara, bertan jostatu gara, batzuk deseginak daude, bertze batzuk zaharberrituta... Historiaren lekuko dira guztiak; batzuek ahantzi nahiko luketen historia. Baina egia aitortzea eta justizia egitea beharrezkoa da. Duten garrantzi hori nabarmendu aldera, ale honetan gai horixe landuko dugu.

Aipatu berri ditugun bunker horiek P Lerroa izenekoaren parte dira, hau da, Pirinioetako mendikatean zehar egindako sare defentsiboa izan zenaren parte. Nahiz eta lehenagotik gune batzuk eraiki izan ziren, 1944-1948. urteen bitartean altxarazi zuen Francok, helburu sinesgaitza oinarri: maki, nazi edo aliatuen etorreraz babestea. 8.000 edo 10.000 bunkerrez osatutako babes-sarea Pirinioetan zehar sakabanatzen zen, Mediterraneoetik Kantauri itsasoraino (500 km-ko hedaduraz). Dena dela, hesi honen antzekoak bertze hainbat herrialdetan ere eraiki ziren: Frantzian, adibidez.

Guda Zibilaren ondoren, mugaren beste aldean desterratu anitz asentatu zen. Okzitaniako Tolosan erbestealdiko gobernu osatu zuten, Frantziako gobernuaren babesa lortu nahian, Francori aurre egin ahal izateko eta Espainiako gobernu berri konkistatzeko. Egindako saiakerak antzuak izan ziren, ordea, Frantziak eta aliatuek ez baitzuten babesik eman; orduan, gerrillen guda hasi zen (makiena, alegia). 1946an, herrialde batzuek NBERi eskatu zioten Espainiarekiko gaitzespen irmoa adierazteko, eraikin horiek egiteagatik. Baina, saiakera horrek ere ez zuen fruiturik eman.

Lerroa zenbait gunetan banatzen zen, eta kokapen bakoitzean, erresistentziarako azpi-guneak izaten ziren. Katalunian, 100 inguru eta Euskal Herrian 56 bat gune izan ziren. Armategiari dagokionez, honako hauek edukitzen zituzten: fusil-metrailetak, tankearen aurkako kanoiak, infanteria-kanoiak, airearen aurkako metraileta eta morteroak. Ohikoak ziren gune batean ikuskatzeko eta agintzeko kokalekuak, artilleri-guneak, zeru idekian ziren kokapenak eta babesteko guneak ere izatea. Proiektuaren barrenean, establimendu horietaz gain, suntsitzeko ekimenak ere zehazten ziren, balizko etsaien etorrerari aurre egiteko protokoloak ere ezarrita agertzen baitziren. Alanbre-hesiaz gain, pertsonen kontrako minez inguratuak ziren.

1980. urtean utzi zioten P Lerroa modu militarrean erabiltzeari, hamarkada horretan, Espainia NATO eta EBn sartu baitzen. Gaur egun, historiaren lekuko dira, eta hainbat lekutan, turismorako erakargarri bihurtu dira (bisita gidatuak eta ibilbide antolatuak burutzen dira, eta bertze kasu batzuetan, mendizale eta erromesentzako aterpeak dira).

Lerro hori altxatzeko kostu ekonomikoa nahiz giza-gastua itzela izan zen. Gainera, ikuspuntu militar eta defentsibotik ere inongo zentzurik izan ez zuena. Honako hau bertze adibide bat baino ez dugu; bururik gabeko agintari batzuen erokeriaren ondorio zuzena.

## SIGLAK

Sigla anitz erabiltzen ditugu gure eguneroko bizitzan: ekonomian, politikan, hezkuntzan... Batzuetan, erdarazkoak erabiltzen ditugu, baina euskarazkoak ere gero eta ohikoagoak izaten dira. Testuan NBE agertu zaigu, Nazio Batuen Erakundea, gaztelaniazko ONU. EB ere agertu da (Europako Batasuna) eta NATO (Ipar Atlantiko Itunen Erakundea, gaztelaniazko OTAN). Lanketa honetan, beraz, siglak landuko ditugu. Horretarako, sorta bat prestatu dugu.

**ABLE** ----- Aldi Baterako Laneko Enpresak (Gaztelaniaz ETT)  
**AE** ----- Autonomia Erkidegoa (gaztelaniaz CCAA)  
**BEGb eta BEGd** ----- Balio Erantsi Garbia, Balio Erantsi Gordina (VAN eta VAB)  
**BN** ----- Batzar Nagusia  
**NAO** ----- Nafarroako Aldizkari Ofiziala (BON)  
**BZ** ----- Babes Zibila (Gaztelaniazko PC)  
**EB** ----- Europar Batasuna (Gaztelaniazko UE)  
**EHU** ----- Euskal Herriko Unibertsitatea (Gaztelaniazko UPV)  
**EPE** ----- Enplegu Publikoaren Eskaintza (Gaztelaniazko OPE)  
**GIB** ----- Giza Inmunoskasiaren Birusa (Gaztelaniazko SIDA)  
**I + G** ----- Ikerkuntza eta Garapena (Gaztelaniazko I + D)  
**HE** ----- Hizkuntza Eskakizuna

**Zuen txanda orain: esaldi hauetan zer sigla paratu behar dira? Beheitian dituzu aukerak.**

- 1.- Mugairin, **Lanbide Heziketako** (1) zentro berria eraiki behar da.
- 2.- Dokumentazioa aurkeztean, **Identifikazio Fiskaleko Zenbakia** (2) eskatu didate.
- 3.- **Nortasun Agiri Nazionala** (3) galdu dut.
- 4.- Herrian **Babes Ofizialeko Etxebizitzak** (4) eraiki behar dira.
- 5.- Hilabete honetan kotxeak **Ibilgailuen Azterketa Teknikoa** (5) gainditu behar du.
- 6.- Iker **Oinarrizko Hezkuntza Orokorreko** (6) 4. mailan ari da.
- 7.- Gure herria **Udalerrri Euskaldunen Mankomunitateko** (7) kidea da.
- 8.- Aitatxi Iruñeko **Zainketa Intentsiboetako Unitatean** (8) ingresatuta dago.

A- ZIU; B.- LH; C.- OHO; D.- IFK; E.- NAN; F.- BOE, G- UEMA; H.- IAT



# BOTA BERTSOA!!

Oroimen historikoa azken urte hauetan denon ahotan egon da. Anitz solastatu, idatzi, abestu, ikertu eta borrokatu da. Kanta, eleberri, poema, iritzi-artikulu zoragarriak ditugu gai horren inguruan; errate baterako, Julio Sotok 2018ko maiatzaren 23an Iruñean abestutako honako bertso hau. Oin batzuk kendu ditugu eta behean paratu ditugu. Zure lana dagokion tokian kokatzea izanen da.



Memoria ez al da osoan ustela

gaur gurean modan balego \_\_\_\_\_1\_\_\_\_\_

baina ahazten zaie sarri dena dela

bide ertzak oraindik beteta \_\_\_\_\_2\_\_\_\_\_

Nahiz eta guztiak ongi etorriak diren

gaur ez gaude hain ongi eta geunden gaizki \_\_\_\_\_3\_\_\_\_\_

nahiz memoria hitza aipatzen den gehien

ez dakit bihotzetik ateratzen \_\_\_\_\_4\_\_\_\_\_.

Nahiz eta batzuk daukagun samin bat barrendik

politika da joko orain zein \_\_\_\_\_5\_\_\_\_\_

ta zer espero leike justiziarengandik

herri honetan bi egia daude \_\_\_\_\_6\_\_\_\_\_.

(Doinua: "Jesus maitea")

a.- zaien

b.- daudela


c.- bezala

d.- oraindik

e.- lehen

f.- lehendik





Falta diren ondorengo hitz hauek testuan txertatu:

**ERNE, SARIRAKO!**

- |            |                 |                 |               |
|------------|-----------------|-----------------|---------------|
| a) nahiz   | d) azken finean | g) ote          | j) era berean |
| b) omen    | e) nolako       | h) alderik alde | k) araberako  |
| c) ondotik | f) zehazki      | i) buruz        | l) artean     |

## ISILPEKO ESKLABOAK

Inguruko mendietan barna bueltaxka bat ematera joan, eta zenbat aldiz gurutzatu ....(1).... gara bunkerren batekin? Gehienetan, jaramonik ere ez diegu egiten; are gehiago, normalean ez ditugu ikusten ere. Izan ere, ikusiaren ikusiz, ikusten ez den gauza bihurtu dira; ahantzitako bertze historia puska bat. Ezin jakin, ....(2)...., halako zenbat eraikin dauden Nafarroan, baina badakigu 1.814 bunker egitea aurreikusia zegoela. Adibidez, Beran bakarrik, halako 126 baino gehiago daude dokumentatuak.

Dena dela, badago atentzioa ematen duen bunkerrik; errate baterako, Baztango Alkurruntz mendian dagoena. Mendigunea zulatua dago ....(3)...., eta 110 metroko porlanezko korridore luze batek zeharkatzen du. Pentsa: gaur egungo erremintarik gabe, a ze ....(4).... lana izanen zuten zulotzar hori egiten. Baina hori Franco eta bere lekaioei bortz axola zitzairen, eskulan aski merkea baitzuten: gerrako galtzaileak.

Aurelio Gutierrezek gai horri ....(5).... ikertu eta idatzi du, hau da, Langileen Batailoiei buruz. Haren blogean<sup>1</sup> irakurri ahal izan dugu gudua galdu zutenak Espainiako aberria zerbitzatzera behartu zituztela esklabotza, umiliazioa eta gosea erabiliz. Dirudenez, bide-bazterrak hildakoz bete ....(6)...., militar frankistek bertzelako izu eta errepresio modua erabili zuten: miseria, gosea, hotza, lanaren laztasuna eta osasun eza. ....(7)...., gerrako presoentzako zigor politikoa izan zen bunkerren eraikuntza.

Kafe-salda, eltzekari pizar bat eta ogi maxel txar bat jaten ....(8).... zuten egun osoko lan fisiko gogorrari aurre egiteko. Horri hotza, higiene eskasa eta hainbat umiliazio egoera gehitu behar zitzaizkion. Zorigaitzoko bizimodu ahul hartan, preso gehienek janaria ebatsi beharra ikusi zuten; aunitzek baratze zein ukuiluetatik lapurtzen zuten janaria. ....(9)...., trukea egiten zuten herriko jendearekin, eta jateko edozein gauza porlanez, gasolinaz edo ahal zutenaz trukatzeko zuten.

Langileen Batailoiak 1937. eta 1940. urteen ....(10).... egon ziren, eta lan eginez zigorrak arintzeko sistema gisa konpreni daitezke; izan ere, lanean emandako denboraren ....(11).... kondena murrizketa zegoen tarteko. Hala, lan zibil ....(12).... militarrek eginarazi zizkieten: zubiak, errepideak, trenbideak, aireportuak... eta nola ez, bunkerrak.


Eraikin isil edo, hobeki erranda, isildu horiek aunitz dute kontatzeko, gogorarazteko eta, batez ere, hausnarrarazteko. Oraindik ere gure parajeetan irauten dutenez, historia ezagutzeko, ez atzetzeko eta ez errepikatzeke erabil ditzagun.

1 <https://oroimena.bera.eus/author/aurelio/>

# BITXILOREAK 2

## BUNKERREN IBILBIDEA

Eraikin militar hauek bertatik bertara ezagutzeko, hainbat lekutan, nolabaiteko ibilbideak prestatu dituzte; errate baterako, Beran “bunkerren ibilbidea” izeneko esku-orria dago erabilgarri turismo bulegoan. Beraz, azken proposamen horretan oinarrituz, ibilbidearen deskribapena ekarri dizugu hurrengo lerrootara. Baina, kasu eman! Ordenatu gabe dago, eta bidea ongi egin nahi baduzu, hurrenkera asmatu beharko duzu.



### ORDENA

..... a) Gotorlekutik jautsitakoan, hasierako bidean aitzinera segituko dugu, Usategietako bide-gurutzeraino. Bertan dagoen bunkerra, gaur egun, ur-tratamendurako erabiltzen da. Gainera, Larhun aldera doan bide bazterretan modu aunitzetako bunkerrak ikusi ahal izanen ditugu.

..... b) Ondotik, malda goiti jarraitu larrean zehar; bertze itxitura bat pasatuko dugu berriz ere, eta laster ikusiko dugu gotorleku bateko zuloa; kontu handiz sartu. Bisitatuko dugun bunkerrik handiena da.

..... c) Ibardingo lepoan hasten da ibilbidea. Handik, Okalarre jatetxe aldera hartuko dugu. Jatetxea aitzinean dugularik, ezkerreko bidea segitu, eta itxitura bat pasatu beharko dugu gainetik.

..... d) Gero, Usategietara bueltatu, eta piknik-gune ondotik doan bidean goiti segituz, bidearen ezkerreko aldean bertze bunker bat ikusiko dugu.

..... e) Bukatzeko, belar-soro parearen azpialdetik dagoen pinudia zeharkatuz, bertze bunker bat dago, ongi gordea. Ibilbidea hasitako tokira bueltatuz amaitzen da.

..... f) Aitzinago, merenderotik goiti ere, pinudi barrenetik doan bidetik jautsi beharko dugu. Horrela, bide-bazterrean barrakoi militar baten arrastoak ikusi ahal izanen ditugu.

# ERANTZUNAK



## LAN eta LAN (3. or.):

1- B; 2- D; 3- E; 4- F; 5- H; 6- C; 7- G; 8- A

## BOTA BERTSOA! (4. or.):

1- c; 2- b; 3- e; 4- a; 5- f; 6- d

## BITXILOREAK 2 (6. or.):

1- c; 2- b; 3- a; 4- d; 5- f; 6- e

## 162. aleko sariketa erantzunak – BITXILOREAK (5. or.):

1- c 2- b 3- b 4- a 5- a 6- c 7- c 8- b

## ETXETIK PLAZARA lehiaketa

Gure lehiaketan parte hartzeko, ariketa baten erantzunak bidali beharko dituzu. Ale honetan, **5. orrialdeko** erantzunak dira beheko aldera pasatu beharrekoak. Marratik moztu eta postaz bidali azkeneko orrialdeko helbideren batera. Hurrengo alean ariketa horren erantzuna eta sariaren irabazlearen izena agertuko dira.

Saria: **ERRIGORA**  
**Nafarroako produktuen**  
**sorta**

162. aleko irabazlea:  
**Itziar Bidegain Ameztoi**  
Elbeteakoa

## ETXETIK PLAZARA liburua **DEBALDE!!**

Eska ezazu,  
Bortziriak, Malerreka eta Leitzaldeko  
IKA euskaltegietan



OHARRA: erantzunak uztailaren 10a baino lehen bidali itzazu.



## SARIRAKO ARIKETA

### BITXILOREAK (5. or.):

1 - _____	5 - _____	9 - _____
2 - _____	6 - _____	10 - _____
3 - _____	7 - _____	11 - _____
4 - _____	8 - _____	12 - _____

EP 163 (2019/06)





# UDAN ere, EUSKARAREN KILIKA!



- LESAKAN, 100 orduko UDA IKASTAROAK, Uztailan, abuztuan eta irailean, B1-5. urratsetik C1-EGARA
- DONEZTEBEN, abuztuan, EGA-C1 ikastaroa (abuztuaren 6tik 31ra)

**Bortziritan edo Malerrean errolatua bazaude, matrikula DEBALDE!**

Informazioa eta matrikulak:

- Uda ikastaroak, 948 637 796 [bortziriak@ikaeuskaltegiak.eus](mailto:bortziriak@ikaeuskaltegiak.eus)
- Doneztebeko EGA-C1, 948 451 555 [malerreka@ikaeuskaltegiak.eus](mailto:malerreka@ikaeuskaltegiak.eus)

[ikaeuskaltegiak.eus](http://ikaeuskaltegiak.eus)

Aldizkari honen egileak:

**Bortziriak eta Malerrekako IKA Euskaltea**

Diseinua, marrazkiak eta maketazioa:

**Joseba Larratxe**

Laguntzaileak:

**Nafarroako Mendialdeko EUSKARA MANKOMUNITATEAK**



## ZOZKETARAKO DATUAK

Izen-abizenak:.....  
Helbidea:..... Herria:.....  
Telefonoa:..... Adina:.....

## HORRA GURE HELBIDEAK

Bortziritako IKA Euskaltea.  
Arretxea 22, 31770 Lesaka.  
[bortziriak@ikaeuskaltegiak.eus](mailto:bortziriak@ikaeuskaltegiak.eus)

Malerrekako IKA Euskaltea.  
Rosa seminario 6, behe, 31740 Doneztebe.  
[malerreka@ikaeuskaltegiak.eus](mailto:malerreka@ikaeuskaltegiak.eus)

